

---

**2017ko ekaina | Buletinaren 065. zbk.**

---

## **Gipuzkoako biztanleria landunaren erdiak baino gehiagok ikasten du**

“Biztanleria okupatuaren parte hartzea bizitza osoan zeharreko ikaskuntzan” txostenak egindako ikaskuntza-jardueraren inguruko ikerketa proiektuaren 2017 urteko inkestako emaitzak aurkezten ditu, zehazki enplegua duten Gipuzkoako pertsonena. Ondorio nagusiak honakoak dira:

>>[Informazio gehiago](#)

---

## **Ikerketako sariak irabazi dituzte Gipuzkoako zentroetako lau ikertzailek**

Azken hilabete honetan, Donostiako zentro desberdinetako lau ikertzailek kimikaren eta ingurumen hezkuntzaren esparruetan ikerketara sari desberdinak jaso dituzte.

>>[Informazio gehiago](#)

---

## **“Global Training” 2017ko deialdia dagoeneko martxan**

“Global Training” programako 2017ko deialdia martxan dago (Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila). Bekak tituluren bat duten gazteei (unibertsitate edo goi mailako lanbide heziketa dutenak) zuzenduta daude eta atzerrian enpresa batean 6 eta 12 hilabete bitarteko iraupena duten praktikak eskaintzen dute.

Helburua nazioarteko mugikortasuna sustatzea da eta beraien profil akademikoarekin bat egiten duten jarduera eta proiektuak garatzen duten bitartean lan mundua ezagutzeko aukera eskaintzen du.

>>[Informazio gehiago](#)

---

## **Enpleguaren erronka: gazteen lan merkaturatzea hobetzea**

Mondragon Unibertsitateak, Mondragoneko Udalaren laguntzarekin, Lanbai enplegu eta prestakuntza azokaren bosgarren edizioa ospatu berri du.

Azokaren helburuetako bat aukerak bilatzen dituzten enpresen, erakundeen eta pertsonen arteko harremana erraztea da. Bertan, interesa duten pertsonak enplegu bat lortzeko edota lan merkatuaren inguruko, lan eskaintzen eta prestakuntzaren inguruko informazioa eskuratzeko aukera dute.

>>[Más información](#)

---

## Talentua, Konekta Caf ko lehen erronka

Pasa den maiatzaren 30ean Tabakalera lehen Konekta Caf  antolatu da, arlo profesionalean berrikuntzak egin nahi dituzten pertsonekin giro informal eta lasaian konektatzeko hileroko egiten den doako topaketa da.

“Talentuaren erronka” izenpean, lurraldeak enpleguaren, ikaskuntzaren eta talentuaren inguruan dituen erronkak aurkeztu dira. Era berean, enpresa barruan talentua erakartzeko eta kudeatzeko praktika on bat aurkeztu da.

>>[M s informaci n](#)

---

## Gipuzkoako 7 ekimen saritu dituzte Euskadiko Lanbide Heziketako XI. Ekintzailtza Sarietan

Euskadiko Lanbide Heziketako XI. Edizioko Ekintzailtza Sarien helburua kultura ekintzailtzaren eta enpresen sorreraren aintzatespena eta sustapena da, beti ere ikaskuntza erreminta bezala.

>>[M s informaci n](#)

---

## Tabakalera: ikasteko espazioa, baita ere udan

Tabakalera jarduera eskaintza zabala prestatu du udara begira, uztailearen 4tik irailaren 8ra bitartean antolatuko direnak.

Jarduera eskaintzan aurkitu daitezke soinu tailerrak, aplikazio informatikoak, argazkilaritza, ikus-entzunezkoak, gorputz-adierazpen, bideo-joko, maketa, fashion film, kartelgintza eta musika elektronikoari buruzko lantegiak, besteak beste.

>>[Informazio gehiago](#)

---

## DEMAL proiektua pertsona helduen prestakuntzaren hobekuntzarako

Europa 2020 Estrategiaren lau helburuetako bat Hezkuntza eta Lanbide Heziketaren (HLH) kalitatea eta eraginkortasuna maila guztietan hobetzea da, eta beraz, HLHren ikaskuntza prozesuen eta sektoreko profesionalen hobekuntza ziurtatzea beharrezkoa da.

Fondo Formaci n Euskadi bazkidea den ERASMUS+ DEMAL Designing, monitoring and evaluating adult learning proiektuak, pertsona helduen prestakuntzan lan egiten duten profesionali zuzendutako prestakuntza programa bat diseinatzea du helburu. Zehazki, proiektua bi gaitasunetan zentratzen da: prestakuntza prozesuaren diseinua eta prozesu horren kontrola eta ebaluazioa.

>>[Informazio gehiago](#)

---

## Beste albisteak...

>>[Interesa duten bestelako albisteak](#)

**Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Oreko Departamentua**  
Gipuzkoa Plaza, z/g  
20004 Donostia-SanSebasti n • Gipuzkoa

**T. +34 943 112 217**  
[info@ikasmina.net](mailto:info@ikasmina.net)

Gure zerrendatik zure harpidetza bertan behera utzi nahi izanez gero, esteka honetan klik egin: [Sakatu hemen buletineko baja berresteko](#)  
Gure buletin guztiak arazorik gabe jasotzeko, sartu [info@ikasmina.net](mailto:info@ikasmina.net) zure kontaktuen zerrendan.